# Ana Saceda: "Eskubaloia osasuntsu dago"



*Bere bizitzaren erdia eskubaloiari zuzendu dion ermuar hau, azken urteotan kirol honek gure herrian izan duen gorakadaren errudun nagusienetako bat dugu. Euskal Ligan jolasten ari den kadete mailako taldearen entrenatzailea izateaz gain, senior mailako taldearen atezaina ere bada. Horrela, denboraldia bukatzear dagoen honetan, beregana hurbildu gara eskubaloiaren oraina eta geroa jakin nahian.*

Naturopatia-Iridologia-Elikapena-Dietetika-Laserra
Joseba Echeberria
NATURISTA
Valdespinako Markesa, 5
48260 ERMUA (Bizkaia)
Ordua hartzeko:
(943) 170 543
R.P.S. 224/96 Ez da osasun-zentrua

optika
ITZE
Probaleku, 7
Tfnoa. 17 46 71

SIRIMIRI TABERNA
Pintxo eta bokatak
Erdiko kale, 11

MUGA
Kirolak

SEXTO CENTENARIO, 7
Teléfono 17 64 77
ERMUA

**DROGETENITTURRI- GUZTIRA ZENBAT URTE ESKUBALOIAN?**

Ana Saceda- OHOko 6. mailan hasi nintzen. Guztira, 14 urte izango dira eskubaloiarekin hasi nintzela.

**D.- HAUEK URTE GUZTIETAN JOKALARI?**

A.S.- Ez, orain dela bost urte jubenil mailako nesken taldea entrenatzen hasi eta ondoren kadete mailara pasa nintzen. Aurten ordea, entrenatzaile eta jokalaria ere banaiz.

**D.- NESKEN SENIOR MAILAN, EZTA?**

A.S.- Bai, hala da. Orain artean, jubenil maila pasa ostean, neskek ez zuten eskubaloian aritzeko aukerarik. Aurten beraz, nesken senior taldea eratzea erabaki genuen. Atezain postuan jolasten dut.



**D.- ZENBAT TALDE DUZUE GUZTIRA?**

A.S.- Neskei dagokienez, guztira lau talde ditugu. Bi kadete mailan eta beste bana jubenil eta senior mailan. Mutiletan berriz, iaz bezala talde bakarra momentuz.

**D.- ZER MODUZ DOAKIZUE DENBORALDIA?**

A.S.- Nesken senior mailako taldeak hirugarren bukatu du denboraldia, oso emaitza ona lortuz. Euskal Liga berriz, apirilean bukatzen da. Momentuz, sailkapen orokorrari begiratuz, hirugarren gaude. Gure helburua iazko hirugarren postua hobetzea da. Ondoren, Kopako Lehiaketa izango da.

**D.- IAZ, KOPAKO GARAIPENA LORTU ZENUTEN...**

A.S.- Jubenil mailan txapeldun eta kadete mailan azpitxapeldun gelditu ginen. Izugarria izan zen.

**D.- AURTEN, NEURKETAK ERMUAN JOLASTU DITUZUE.**

A.S.- Bai, orain artean Eibarko Unibertsitate Laboralean aritu izan gara. Aritzmendi eraberritu eta hantxe jolastu ditugu neurketa batzuk.

**D.- NOLAKOA IZAN DA JENDEAREN ERANTZUNA?**

A.S.- Ezinhobea. Iazko denboraldiarekin alderatuz, hiru aldiz ikusle gehiago hurbiltzen da neurketetara. Hurbiltasuna nabaritzen dugu.

**D.- HARROBI LANA ZAINTZEN DUZUE?**

A.S.- Ezinbestekoa da lan hori egitea. Ermuko ikastetxeekin harremana dugu, eta elkarlanean osatzen dira taldeak. Aurrera begira, nesken aurre-kadete eta mutilen talde gehiago eratzea espero dugu.

*Asier Ibaibarriaga*

ANAITASUNA IKASTOLA ERMUA

KALITATEZKO IRAKASKUNTZA

Harategia



M. LAZKANO

Bertoko Okelak
Geure Baserrian Hazitako Txalak
Geuk gizendutako abeltzantza
Merkatua, 36-37 zbk.k - Tfnoa. 17 05 84
Ermua

TXALAPARTA Taberna
PATXI Taberna
Bar EGO-GAIN
Bar AITZGORRI
TB
TABERNARI BATUAK
ZARAUZTARRA Jatetxea
JAI ALAI Taberna
SIRIMIRI
HERGA Kafetegia